

**ELKARKIDETZAN GOBERNATZEA
BAT EGINIK EUROPA INDARTSUAGOA ERAIKITZEKO**

PRESIDENTE HAUEN ADIERAZPENA

**Europako Eskualdeen Batzarra
Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseilua
Eskualde Periferikoen eta Itsas Inguruko Eskualdeen Konferentzia
Eurocities**

Bruselan, 2011ko abenduaren 12an

Michèle Sabban

Ile-de-France Eskualdeko presidenteordea, Europako Eskualdeen Batzarreko presidentea

Wolfgang Schuster

Stuttgarteko alkate jauna, Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluko presidentea

Jean-Yves Le Drian

Bretainia eskualdeko presidentea, Eskualde Periferikoen eta Itsas Inguruko Eskualdeen Konferentziako presidentea

Frank Jensen

Kopenhageko alkate jauna,

Presidentea

EUROCITIES

Krisi ekonomiko eta finantzario bat gogor astintzen ari da Europa, eta hori gure lidergo politikoarekiko eta gure etorkizunarekiko segurtasun eta konfiantza ezeko sentimenduetan islatzen da. Europa mailan aurre egin beharreko arazoak nazio, eskualde eta toki mailetan ere daude. Erronka horiei aurre egin eta irtenbideak aurkitzeko, beharrezkoa da gobernu maila guztiak lankidetzan aritzea. Dokumentu garrantzitsuak ditugu, esate baterako, Eskualdeen Batzordearen “Maila askotariko Gobernantzaren Liburu Zuria” eta “Bartzelona Agenda”; bi-biak mugarri ditugu “elkarkidetzako gobernantza” ezartzeko bilakaeran, bai eta askotariko gobernantzako kultura sortzeko ere.

Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluak, Europako Eskualdeen Batzarrek, Eskualde Periferikoen eta Itsas Inguruko Eskualdeen Konferentziak, eta EUROCITIESek “Elkarkidetzako gobernantza” eredia sustatzen dute, Europa indartsuagoa eraikitzeko asmoz.

Elkarkidetzan gobernatzea da hurrengoa lortzeko modurik eraginkorrena:

- Europar funtsezkoak diren helburu eta neurriak sustatzea, maila askotako gobernantza sistemaren bitartez; sistema horrek esparru bakoitzean koordinatutako erantzukizunak lituzke oinarri, bai eta arau, kontratu eta konpromiso propio fidagarriak eta elkarrekin adostutakoak ere.
- Subsidiarotasun eta proportzionaltasun printzipioak bateratzea, boterea, elkarkidetzak eta partaidetza Europako maila politiko orotan banatuz, borondatezko erabakien bitartez, esparru politiko ezberdinetako eskumen juridikoak aldatu gabe.
- Sare horizontalak eta bertikalak garatzea; hartara, herritarrak, enpresa-erakundeak, gobernu kanpoko erakundeak eta bestelakoak aintzat hartu eta mugiaraziko dira, helburu eta neurri komunak erdiesteko xedez, izan ere, ezinbestekoak dira europar guztientzat, eta, horrela, Europar Batasunarekiko bat etortzea sendotuko litzateke.

Elkarkidetzan gobernatzea eta Europa 2020 Estrategia

EUEK-k, EEBk, EPIK-k eta EUROCITIESek, Europako tokiko eta eskualdeko gobernuen ordezkari gisa, hurrengoa nahi dute:

1. Europa 2020 Estrategiaren helburuei laguntzea. Gisa horretan, hazkunde inteligentea, iraunkorra eta barneratzailea suspertuko da, krisi ekonomikoa gainditzeko.
2. Lisboako Estrategiak (2000-2010) arrakastarik izan ez zuela azpimarratzea, tokiko eta eskualdeko esparruen partaidetza egokia izan ez zuelako; izan ere, gobernu zentralen eta europarraren esparruak baino ez zituen ardatz izan.
3. Lankidetzak horizontal eta bertikal eraikitzailea eta eraginkorra erantzukizuna eta konpromisoa partekatze modurik onena dela erakustea azpimarratzea, hori baita emaitza hautemangarriak eskuratzeko beharrezkoa dena.
4. Eragile guztiek, gobernu esparru orotan, hain zuzen ere, toki eta eskualdeetako agintariek, baita bestelako interesdunek ere, elkarrekin mobilizatu eta kooperatzea, Europa 2020 Estrategiak bere helburuak lortzea bermatzen dituzten neurriak elkarrekin abiarazteko.

Elkarkidetzan gobernatzea eta EBko politikak

EUEK-k, EEBk, EPIK-k eta EUROCIETIEsek hurrengoak eskatzen diete Europako erakundeei eta gobernu nazionalai:

1. “Elkarkidetzako gobernantza” eredu hau lurralde dimentsioko EBko politika guztietan ezartzea; gisa horretan, 2011ko maiatzaren 19an Godollon egindako Lurralde Kohesiorako Ministerio Batzar Informalean hartutako Europar Batasuneko 2020ko Lurralde Agenda abiarazten lagunduko da.
2. Xehetasun handiagoarekin aztertzea eredu hau politika garrantzitsuko esparru orotan nola ezar daitekeen; Europar Batzordeak erakutsi nahi duen “arautze intelijentea” xede izatea.
3. EBko kohesiorako politika berria hartzea, Europan gizarte, ekonomia eta lurralde kohesioa eskuratzeko helburuarekin, Europa 2020 Estrategian ezarritakoari jarraiki; modu horretan, eremu zehatz eta funtsezkoa izango da "elkarkidetzako gobernantza" aplikatu ahal izateko, maila askotariko gobernantzaren oinarritzako printzipioekin bat etorriz.
4. Eskualdeko eta tokiko agintarien, hirien, landa-inguruen, esparru funtzionalen, mendi-inguruen, itsas inguruen, inguru ultraperiferikoen eta biztanle gutxiko lekuen partaidetza aktiboa lortzea, Elkarkidetzako Kontratuak eta Programa Eragileak prestatzeko, bai eta horiek kontrolatzeko ere, abiarazi ondoren.
5. Modu konstruktiboan kooperatzea, Europar Batasunak Elkarkidetzako Kontratuen eta Programen prestatetan, abiarazpenean, kontrolean eta ebaluazioan elkartutako kideen partaidetza bermatzen duen jarreraren kodea prestatzeko.
6. Helburu komun, printzipio orientagarri eta elkartutako kide ezberdinen paperari eta funtzioari buruzko erabakiak hartzea; nahitaez aplikatu beharko dira eta Europar Batasunak horiek betetzeko betebeharra ezarriko du, Elkarkidetzako Kontratuak eta Programak gauzatzeko ezinbesteko baldintza gisa.
7. Tokiko eta eskualdeko agintari publikoek eta, bereziki, agintaldi publiko eta legezketasun demokratikoa duten tokiko eta eskualdeko ordezkari politikoen ordezkariak parte hartuko dute eta agintari kudeatzaileen elkartutako kidetzat jo beharko dira, berdintasun baldintzetan, ekonomia, gizarte eta ingurumen interes taldeekin ez lotzeko; programek arrakasta izango dute parte hartzen baldin badute eta, era berean, legezketasunaren, paperaren, betekizunen eta erantzukizunen artean dauden ezberdintasunak ere ezagutu beharko dituzte.